



EGINBIDEA.- Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioko idazkaria naizen honek emana, zera agerrarazteko: jarraian datozen estatutu hauek, hau barne 22 orri direna, 2018ko ekainaren 7ko bileran onartu zituela Fundazioko Patronatuak aho batez; eta bilera horretako aktan l. eranskin gisa jaso direla.

Donostia, 2018ko ekainaren 7a.

Sin.: Josune Aldabe Muxika

FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izena, eraketa eta abxikipena.
2. artikulua. Araubidea, gaitasuna eta nortasun juridikoa.
3. artikulua. Fundazioaren helburuak.
4. artikulua. Helbidea eta lurralde-eremua.
5. artikulua. Onuradunak.
6. artikulua. Jarduera- eta funtzionamendu-printzipioak.

II. TITULUA. PATRONATUA

I. KAPITULUA. KIDEAK ETA ESKUMENAK.

7. artikulua. Patronatua.
8. artikulua. Patronatuko kideak.
9. artikulua. Patronatuko kideen izendapena eta kide izateari uztea.
10. artikulua. Patronatuko kide izateari uzteko arrazoiak.
11. artikulua. Patronatuko kideak ordeztzea.
12. artikulua. Patronatuaren iraupena.
13. artikulua. Patronatuko kide karguaren doakotasuna.
14. artikulua. Fundazioko presidentea.
15. artikulua. Fundazioko presidenteordea.
16. artikulua. Idazkaria.
17. artikulua. Diruzaina.
18. artikulua. Patronatuaren ahalmenak eta egitekoak.
19. artikulua. Ahalmenak eskuordetzea eta ahalordeak ematea.
20. artikulua. Batzorde betearazleak edo eskuordetuak.
21. artikulua. Patronatuaren betebeharrak.
22. artikulua. Patronatuko kideen autokontratazioa.
23. artikulua. Patronatuko kideen erantzukizuna.

II. KAPITULUA. FUNTZIONAMENDU ARAUAK.

24. artikulua. Patronatuaren barneko funtzionamendua.
25. artikulua. Patronatua eratzea eta erabakiak hartzea.



III. TITULUA. SUESKOLAREN ZERBITZUKO LANGILEAK

26. artikulua. SUESKOLAREN zerbitzuko langileak.

IV. TITULUA. ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

I. KAPITULUA. ONDAREAREN OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINNTZA.

27. artikulua. SUESKOLAREN ondarea.

28. artikulua. Ondarezko zuzkidura.

29. artikulua. Fundazioaren ondarearen zaintza.

II. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA.

30. artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta ekitaldi ekonomikoa.

31. artikulua. Jarduera-plana.

32. artikulua. Urteko kontuak.

33. artikulua. Fundazioaren baliabideen erabilera.

34. artikulua. Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak garatzea.

35. artikulua. Kontratazio araubidea.

36. artikulua. Xedatze- eta kargatze-egintzak.

V. TITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA, BAT-EGITEA, BEREIZTEA, AZKENTZEA ETA ERALDATZEA.

37. artikulua. Estatutuak aldatzea.

38. artikulua. Bat-egitea.

39. artikulua. Bereiztea.

40. artikulua. Azkentzea.

41. artikulua. Azkentzeko prozedura.

42. artikulua. Likidazioa eta soberako ondarearen erabilera.

43. artikulua. Fundazioa eraldatu eta bestelako erakunde bihurtzea.

VI. TITULUA. BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

44. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa.

45. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza.

46. artikulua. Zehapen-araubidea.

II. TITULUA. SUESKOLAN SARTZEA ETA SUESKOLAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA

47. artikulua. SUESKOLAN sartzea.

48. artikulua. SUESKOLAREKIN lankidetzan aritzea.

49. artikulua. SUESKOLAREN ohorezko lankideak.

50. artikulua. Suteen prebentziorako Gipuzkoa foroa.



FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDazioAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izena, eraketa eta atxikipena.

1. Estatutu hauen bidez, "Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa" izeneko fundazioa arautzen da (SUESKOLA edo fundazioa, aurrerantzean). Fundazio hau Gipuzkoako Foru Aldundiak eratu zuen, 2009ko uztailaren 13an eman eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan 2009ko abenduaren 10ean, F-254 zenbakiaz, inskribatutako eskritura publikoan. Dituen helburuak kontuan hartuta, erregistroko 1. sekzioan dago sailkatuta: irakaskuntza eta ikerketan aritzen den fundazio gisa.

2. SUESKOLA irabazi-asmorik gabeko erakundea da, fundatzaileak hala nahi izan duelako, bere ondarea estatutu hauen 3. artikuluan jasotako interes orokorreko helburuak lortzeari lotuta duena modu iraunkorrean.

3. SUESKOLA bere fundatzailearen borondatearen eta estatutu hauen arabera arautzen da; eta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen eta hori garatzeko erregelamendu-xedapenen eta indarrean dauden gainerako arauen arabera.

4. Ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 63.1 artikuluari jarraikiz, euskal sektore publikoko fundazioa da SUESKOLA: hain justu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikokoa, aipatu lurralde historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarriari jarraikiz.

2. artikulua. Araubidea, gaitasuna eta nortasun juridikoa.

1. SUESKOLAK nortasun juridiko propioa eta independentea du, eratze-eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatu zenetik aurrera. Halaber, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun erabatekoa du bere helburuak betetzeko, Kode Zibilaren 38. artikuluan ezarritakoaren arabera, muga hauekin soilik: fundatzaileak bere borondatez fundazioa eratzeak ekintzan adierazitakoak, estatutu hauetan ezarritakoak eta, betiere, aplikatzekoak diren lege xedapenetan eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean, jasotakoak.

2. Horrenbestez, eta Babesletzari egin beharreko komunikazioak eragotzi gabe, SUESKOLAK zera ahalko du:

- a) Mota guztietako jardura ekonomikoak garatu, fundazioaren helburuak lortze aldera edo helburuak lortzeko baliabideak batze aldera.
- b) Mota guztietako ondasunak eta eskubideak bereganatu eta besterendu, edozein tituluren bidez; eta mota guztietako egintzak, negozioak eta kontratuak egin.
- c) Edozein motatako akzioak baliatu, bere estatutuen eta legeen arabera.

3. artikulua. Fundazioaren helburuak.

1. SUESKOLAREN xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde-eremu batzuetan baliabide iraunkorrak jartzea, trebakuntza eta prestakuntza emateko suteen prebentzio eta itzaltze arloan nahiz beste ikasgai osagarri batzuen inguruan; ondorengo hauek jendeari irakastea eta helaraztea eta jendeak hobeto ezagutu ditzan lortzea: pertsonen eta eraikinen jasaten dituzten arrisku egoeren aurrean izan



beharreko portaera; eta enpresetako, lantokietako, ikastetxeetako nahiz etxeetako segurtasun neurriak eta horietan izaten diren suteak itzaltzeko teknikak; finean, salbamendua bere esanahirik zabalenean. Horretan guztian, erreferente da jada SUESKOLA.

Enpresetako, suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuetako zein larrialdiei aurregiteko zerbitzuetako langileen eta pertsonen nahiz eraikinen gaineko arrisku egoerak kudeatzen dituzten beste edozein taldeen prestakuntzak honako hauek hartzen ditu bere barne: suteen prebentzio eta itzaltzearekin zerikusia duten gaitasun-atal guztiak; gehi osagarriak, hala nola, altuerako lanak, lehen sorospena, salbamendua eta abar.

2. Xede orokor horren barruan, jardura zehatz hauek burutuko ditu nagusiki:

- a) Prestatzaile adituen bidez ezagutza kudeatzea.
- b) Irakaskuntzaren bidez, ezagutza transmititzea eta aipatutako arloetan jarrerak eta abileziak sustatzea.
- c) Profesionalak segurtasun-arloko teknologia berrietan eta araudian trebatzea.
- d) Gizartean autobabesaren kultura sustatzea.
- e) Segurtasunerako protokoloak eta gidak sortzea.
- f) Aldizkariak, buletinak eta, oro har, argitalpenak editatzea, SUESKOLAREN jardura eta xedeaosatzen duten gaiak dibulgatzeko.
- g) Itunak eta hitzarmenak sinatzea fundazioari bere helburuak lortzen lagun diezaiokeen edozein entitatearekin.
- h) Eta beste edozein jardura, fundazioaren helburuak erdiesteko balio badute betiere.

3. Fundazioaren helburuak egoki irizitako moduan garatuko ditu SUESKOLAK, beste entitate edo erakunde batzuetan parte hartuz ere bai, muga bakarrik izanik fundazio-gutunean, estatutu hauetan eta legeetan datozenak.

4. Halaber, estatutu hauetan jasotako helburuen barruan, edozein kontratazio prozeduretan parte hartu ahal izango du.

4. artikulua. Helbidea eta lurralde-eremua.

1. Ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, bere jarduerak nagusiki egiten dituen lekuan dauka SUESKOLAK bere helbidea: Ordiziako (Gipuzkoa) Upabi Aldea 2. zk.an dagoen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa den "Sueskola" deitu eraikinean.

2. Helbide hori aldatzeko estatutuak aldatzeko erabakia hartu beharko du fundazioaren Patronatuak; eta erabaki hori Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da.

Halaber, Patronatuari ahalmena ematen zaio establezimenduen, ordezkaritzen edo bulegoen egoitzak hautatzeko, fundazioaren helburuak betetzeko eginkizunean sortzen diren beharizanen arabera.

3. SUESKOLAK Gipuzkoako Lurralde Historikoan jardungo du batez ere; baina Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde-eremuetan ere jardun ahal izango du.

5. artikulua. Onuradunak.

1. Hauek izango dira SUESKOLAREN jardueren onuradun nagusiak:

- a) Suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuetako zein larrialdiei aurregiteko zerbitzuetako profesionalak; horiei prestakuntza eta trebakuntza iraunkorra, teorikoa zein praktikoa, eskaintze aldera.



- b) Lan arriskuen prebentzio alorrean indarrean dagoen legeriak ezarritako babes eginbeharra betetze aldera, beren langileei suteen prebentzio eta itzalketan nahiz larrialdiei aurregiteko beste edozein zerbitzutan prestakuntza eta trebakuntza ematera behartuta dauden enpresak eta entitateak.
 - c) Ikastetxeak: suarekin zerikusia duten arriskuen prebentzioari nahiz larrialdiei aurregiteari lotutako ezagutzak eta esperientziak eskaintze aldera irakasle eta ikasleei.
 - d) Suarekin eta larrialdiei aurregitearekin zerikusia duten gaietan prestakuntza behar bereziak dituzten ikastetxeak.
 - e) Suteen prebentzio eta itzaltze lanetan zein larrialdiei aurregiteko lanetan parte hartzen duten boluntarioak.
2. Onuradun zehatzak izendatzeko, ondorengo hauek izango ditu aintzat Patronatuak:
- a) Fundazioaren jarduerak pertsona fisikoek nahiz juridikoek osatutako talde orokorreki ekarri behar die onura. Nolanahi ere, onuradunen taldea aukeratzeko irizpideek objektiboak eta inpartzialak behar dute izan.
 - b) Ezin izango da SUESKOLAREN helburu nagusia izan haren prestazioak eskaintzea hauei guztiei: fundatzaileari edo Patronatuko kideei, haien ezkontideei edo haiekin antzeko harreman afektiboa dutenei edo haien laugarren gradura bitarteko senideei (laugarrena barne), ezta interes orokorreko helbururik ez duten pertsona juridiko bereziei ere.
 - c) Inork ere ezin izango du alegatu, ez bakarka ez taldeka, SUESKOLAREN edo Patronatuaren aurrean, onura horiek eman baino lehen baliatzeko aukera, ezta pertsona jakin batzuei emanarazi ere.
3. Ezin zaizkienean guztiei prestazioak edo zerbitzuak eman, Patronatuak aukeratuko ditu onuradunak eta horien artean lehentasun hurrenkera bat jarriko du, erabakia loteslea izango delarik; eta horretarako kontuan izango ditu ondorengo hauek: onuradunen merezimenduak, beharrianak, gaitasun ekonomikoa, prestazio eta zerbitzuak aprobetxatzeko aukera, edo beste ezaugarri objektibo batzuk.
4. Edonola ere, ematen dituen zerbitzuengatik edo egiten dituen jarduerengatik zenbateko bat ordaintzea eskatzen badu SUESKOLAK, onuradunak zehazteko kontuan hartuko da bakar-bakarrik eskatutako zenbatekoa ordaintzea.

6. artikulua. Jarduera- eta funtzionamendu-printzipioak.

1. Bere jardueran, printzipio hauek izango ditu gidari SUESKOLAK:
- a) Publikotasuna eta gardentasuna: fundazioaren xede eta jarduerari buruzko informazio nahikoa emango du, herritarrek oro har eta balizko onuradunek haien berri izan dezaten.
 - b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.
 - c) Jarduteko jarraibideen sustapena: jokabide-kodeak eta funtzionamendurako jardunbide egokien kodeak sortuz.
 - d) Patronatuko kideen zerbitzu-espirtuaren sustapena, baita fundazioaren interesak norberaren interesen aldean lehenesteko espirtuarena ere.
 - e) Etengabeko lankidetzat leiala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin.



- f) Ondarea eta errentak fundazioaren xedeetarako benetan erabiltzen delako defentsa eta babes, estatutuetan eta indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorrira.
- g) Genero-berdintasuna.
- h) Hizkuntza-berdintasuna.

2. Euskal sektore publikoko fundazioa denez, eta hizkuntza-berdintasunaren printzipioari jarraikiz, kontraktorik adierazi ezean, euskararen erabilera lehenetsiko du SUESKOLAK, hiztunen aukerak berdintzeko. Horrenbestez, euskara erabiliko du lehentasunez, bai barneko funtzionamenduan (lan hizkuntza), baita zerbitzuak eman edo jarduerak burutzerakoan herritarrekin izaten dituen harremanetan ere (zerbitzu hizkuntza). Herritarrekin dituen harremanetan, dena den, bi hizkuntza ofizialen artean SUESKOLArekin jarduterakoan erabiliko dutena aukeratzeko daukaten eskubidea bermatu eta errespetatuko du beti.

Ido beretik, euskal sektore publikoko entitateekin izaten dituen harremanetan (idatzizkoetan zein ahozkoetan), euskara erabiliko du lehentasunez.

II. TITULUA. PATRONATUA


I. KAPITULUA. KIDEAK ETA ESKUMENAK.

7. artikulua. Patronatua.

Patronatua SUESKOLAREN gobernu- eta ordezkaritza-organoa da. Patronatuari dagokio fundazioaren helburuak betetzea, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administrazioa, eta horien etekina eta erabilgarritasuna segurtatzea ere.

8. artikulua. Patronatuko kideak.

1. Patronatuak gutxienez SEI (6) kide izango ditu, eta gehienez HAMABOST (15). Patronatuko kideek gutxienezko kide-kopuruari eutsi behar diote.
2. Pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahalko dira Patronatuko kideak. Patronatua osatzen duten pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, eta ezin izango dute desgaituta egon kargu publikoak betetzeko. Patronatuko kideak diren pertsona juridikoek, berriz, organo horretan haien ordezkari izango diren pertsona fisikoak izendatu beharko dituzte.
3. Gipuzkoako Foru Aldundian ondorengo kargu hauek betetzen dituztenak Patronatuko kide izango dira:
 - a) Suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuen eta salbamenduaren alorrean eskumena duen foru diputatua.
 - b) Suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuen eta salbamenduaren alorrean eskumena duen zuzendari nagusia; eta, horren ezean, eraikinetako suteen aurkako babesaren eta segurtasunaren gaitan Aldundiko departamentuei aholku ematea eta Foru Aldundiko lantokien larrialdietako eta autobabeserako planak prestatzea bere gain dauzkan zerbitzua bere mende duen zuzendari nagusia.
 - c) Beste 4 zuzendari nagusi, gehienez ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak izendatutakoak, nagusiki ondorengo alor hauetan eskumena dutenen artetik: ekonomiaren sustapena eta garapena; mendiak; finantza eta aurrekontuak; eta lurralde antolaketa.



4. Halaber, Patronatuan parte hartuko dute baita ere estatutu hauen 47. artikuluan aipatzen diren fundazioari kide tutako entitateek izendatutako pertsona fisikoak.

5. Euskal sektore publikoko fundazioa denez, Patronatuko kideen gehiengoa izendatzeko eskubidea izango dute sektore horretako entitateek. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 63.1 artikuluari jarraikiz, Administrazio Publikoak Patronatuan izenda dezakeen kide kopuruak proportzionala izan beharko du fundazioaren zuzkidurari edo ondareari egindako ekarpenarekiko. Izenda ditzake bai fundazioaren helburuekin zerikusia duten arloetan ibilbide profesionala edo ospe aitortua duten pertsona fisikoak, bai beren helburu sozialagatik edo beren eginkizunengatik fundazioaren helburuak hobeto betetzea dakarten pertsona juridikoak. Edonola ere, Administrazio Publikotik kanpoko pertsona horien izendapenean, bermatu egingo da Administrazio Publikoaren ordezkartza gehiengoa dela Patronatuan.

6. Artikulu honen 3. zenbakian, a) eta b) letretan aipatutakoak Patronatuko berezko kideak dira; Patronatuko gainerako kideak hautapenezkoak izango dira.

7. Emakumeen eta gizonen ordezkartza edo partaidetza orekatua izan behar du Patronatuak; hau da, sexu bakoitzeko pertsonak ez dira pertsona kopuru osoaren %60 baino gehiago edo %40 baino gutxiago izan behar. Ordezkartza edo partaidetza orekatuaren irizpide hau hautapenezko kideei aplikatuko zaie.

9. artikulua. Patronatuko kideen izendapena eta kide izateari uztea.

1. Hautapenezkoak direnen kasuan, Patronatuko kide berriak izendatu behar direnean, kide gehiago izango direlako edo kideren bat ordeztu behar delako, Patronatuak izendatuko ditu, 8. artikulua 5. eta 7. zenbakietan xedatutakoari jarraikiz izendatu ere. Horretarako, kideen gehiengo soilaren aldeko botoa beharko da gutxienez; eta, betiere, 8.3 artikuluan aipatutako bertaratutako kide guztien aldeko botoa beharko da.

2. Izendatutako kideek espresuki onartu beharko dute beren izendapena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 16. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Halaber, karguari uko egiten badiote, artikulu horretan bertan xedatutakoaren arabera egin beharko dute.

3. Organo judizialak, kautelazko neurri gisa, erabaki dezake Patronatuko kideen jarduera aldi baterako etetea, haien kontrako erantzukizun-akzioen bat aurkezten denean legeak aurreikusitako arduraz kargua ez betetzeagatik.

4. Berezko nahiz hautapenezko kideen izendapenaren eta kargua utzi izanaren berri eman behar dio Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari, inskribatze aldera, gertatzen diren egunetik zenbatzen hasita HIRU (3) hilabeteko epean.

10. artikulua. Patronatuko kide izateari uzteko arrazoiak.

1. Patronatuko kideek kasu hauetan utziko diote kide izateari:

- a) Hiltzen direnean edo hil direla deklaritzen dutenean; eta pertsona juridikoa azkentzen denean.
- b) Legeak ezarritakoaren arabera, ezgaitasun-, desgaitasun- edo bateraezintasun-egoeraren batean gertatzen direnean.
- c) Patronatuko kide izatera eraman zituen kargua betetzeari uzten diotenean.



- d) Kargua ordezkari leial batek berez behar duen arduraz betetzen ez dutenean, baldin eta ebazpen judizialez adierazten bada ez dutela hala bete.
 - e) Ebazpen judizialez erantzukizun-akzioa onartzen denean.
 - f) Karguari uko egiten diotenean.
 - g) Legeak aurreikusi beste kasuren bat gertatzen denean.
2. Hautapenezko kideei dagokienez, kide izateari uzteko arrazoia izango da baita ere Patronatuak hala erabakitzea, 9.1 artikuluan izendapenerako aurreikusi gehiengoaren aldeko botoa tarteko.

11. artikulua. Patronatuko kideak ordezteak.


1. Patronatuko kideak ordezteko prozedura izendatzeko bera izango da.
2. Ezin direnean Patronatuko kideak aipatu eran ordeztu, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean aurreikusitako estatutu-aldaketara joko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzak ahalmena izango du Patronatua behin-behinean –hau da, estatutuak aldatu arte– osatuko duten kideak edo kidea izendatzeko.
3. Uneren batean Patronatuko kideak SEI (6) baino gutxiago badira, gainerako kideek -beti ere haien kargua indarrean dagoela-, edo Gipuzkoako Foru Aldundiak -fundatzailea den aldetik-, hala badagokio, behar adina kide izendatu ahal izango dituzte legeak eskatzen duen gutxieneko kopurura iristeko, eta HOGEITA HAMAR (30) eguneko epea izango dute izendapen horiek Babesletzari jakinarazteko.
4. Patronatuko kideen ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

12. artikulua. Patronatuaren iraupena.

1. Patronatuko kide kargua mugagabekoa izango da.
2. Heriotza, ezintasuna, desgaitasuna, heriotza-adierazpena, baztertzea edo bateraezintasuna, ukoa, mugiaraztea eta, oro har, ordezteak edo kargu-uztea dakarren beste edozein gorabehera dela-eta, bete gabe geratzen diren postuak Patronatuak beteko ditu, izendatzeko prozedurari jarraituz. Kargu bat ezin izango da egon 6 hilabetetik gora bete gabe.

13. artikulua. Patronatuko kide karguaren doakotasuna.

1. Patronatuko kideek doan jardungo dute beren karguan, horrek ezertan eragotzi gabe beren eginkizunek eragiten dizkieten gastuak kobratzea, behar bezala justifikatuz gero.
2. Beren eginkizunei dagozkien zerbitzuez gainera fundazioan beste zerbitzu batzuk ematen dituzten Patronatuko kideei ordainsari bat ematea erabaki dezake Patronatuak, salbu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, fundatzailea den aldetik, espresuki debekatzen badu. Erabaki hori Babesletzak baimendu egin beharko du, HIRU (3) hilabeteko epean.



14. artikulua. Fundazioko presidentea.

1. Gipuzkoako Foru Aldundian suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuen eta salbamenduaren alorrean eskumena duen foru diputatua izango da SUESKOLako presidentea.
2. Presidentearen ardura izango da, bere ekimenez edo gutxienez kideen herenak hala eskatuta, Patronatua biltzeko deialdia egitea, eztabaidak bideratzea eta hartzen diren erabakiak betearaztea.
3. Patronatuko presidentea gobernu organo horren ordezkari gorena izango da; eta, Patronatuko kide izateagatik dagozkion ahalmenez gain, SUESKOLA ordezkatzeko du Patronatuaren edo fundazioko beste organo baten erabakietatik eratorritako ekintza eta kontratu guztietan, baita auzi, espediente, eta administrazio- nahiz gobernu-gaietan, eta gai judizial nahiz judizior kanpoko gaietan ere. Horretarako, prokuradore edota abokatuei botere orokorrak emateko ahalmena ere izango du.

15. artikulua. Fundazioko presidenteordea.

1. Gipuzkoako Foru Aldundian suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuen eta salbamenduaren alorrean eskumena duen zuzendari nagusia eta, horren ezean, eraikinetako suteen aurkako babesaren eta segurtasunaren gaietan Aldundiko departamentuei aholku ematea eta Foru Aldundiko lantokien larrialdietako eta autobabeserako planak prestatzea bere gain dauzkan zerbitzua bere mende duen zuzendari nagusia izango da SUESKOLako presidenteordea.
2. Presidentea ez dagoenean, presidenteordeak hura ordeztuko du, eta hori egiaztatzeko nahikoa izango da egoeraren berri ematea.
3. Presidentea zein presidenteordea, bietako inor ez dagoenean, presidenteak izendatutako kideak jardungo du presidente lanetan; eta, inor izendatu ez badu, estatutuen 8.3 artikuluan aipatzen diren kide gisa denbora gehien daramanak ala kide edadetuenak, Patronatuak erabakitakoaren arabera.

16. artikulua. Idazkaria.

1. Patronatuak idazkari bat izendatuko du, bere kideen artetik edo kanpoko pertsona bat. Kanpoko norbait bada, hitza izango du, baina botorik ez.
2. Idazkariaren eginkizunak hauek izango dira, besteak beste:
 - a) Patronatuaren bileren aktak egitea: onartu eta presidentearen oniritzia jaso ondoren, Akta Liburura transkribatuko direnak.
 - b) Patronatuak hartutako erabakien ziurtagiriak egitea, presidentearen oniritziarekin.
 - c) Fundazioaren dokumentazioa zaintzea.

17. artikulua. Diruzaina.

1. Patronatuak diruzain bat izendatu ahal izango du, bere kideen artetik edo kanpoko pertsona bat. Kanpoko norbait bada, hitza izango du, baina botorik ez.
2. Diruzainak funtzio hauek izango ditu:
 - a) Fundazioaren funtsak biltzea eta gordetzea.
 - b) Sarreraren eta gastuen balantzea aurkeztea eta sinatzea.
 - c) Inbentarioa, kontuak, jarduera-plana eta eguneko liburuak eramatea.



18. artikulua. Patronatuaren ahalmenak eta egitekoak.

Fundazioaren gobernuari eta administrazioari dagokion guztia Patronatuaren eskumena izango da; eta, bereziki, ondorengo ahalmenak eta egiteko hauek izango ditu gutxienez:


- a) Fundazioaren orientazioa ezartzea, haren helburuak ahalik eta hobekien bete daitezzen.
- b) Ekonomia- eta finantza-baliabide guztiak administratzea, haien jatorria edozein dela ere.
- c) Inbentarioa, egoera-balantzea, emaitzen kontua eta aurreko ekitaldiko memoria eta jarduera-planaren likidazioa ontzat ematea.
- d) Hurrengo ekitaldiko jarduera-plana onartzea, baita hura azaltzen duen memoria ere.
- e) Egoki diren barne-araubideko arauak onartzea.
- f) Batzorde eskuordetu edo betearazleak sortzea, haien batzordekideak izendatzea eta batzorde horiek izango dituzten ahalmenak zehaztea.
- g) Ahalorde orokorrak edo bereziak ematea eta errebokatzea.
- h) Zuzendaritza-karguak, kargu exekutiboak eta aholkularitza-karguak izendatzea; eta gainerako langileak kontratatzea.
- i) Fundazioaren helburuak egokien betetzeko beharrezko egintza eta kontratu-mota oro formalizatu eta onartzea, zeinahi ere den haien izaera: zibila, merkataritzakoa, lan-arlokoa, administrazioakoa eta abar.
- j) Erakunde eskumendunei beharrezko proposamenak egitea, maila goragoko erabakia beharko duten gaien kasuan.
- k) Enpresa, elkarre, erakunde edo partikularren partaidetza sustatzea elkarlan teknikorako eta langile kualifikatuak trebatzeko programetan, funtsak emanez eta lankidetzak hitzarmenak sinatuz.
- l) Herentziak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo haien uko egitea, fundazioarentzat komenigarria den guztietan; hori horrela, Babesletza jakinaren gainean jarritz.
- m) Fundazioaren estatutuak aldatzea.
- n) Bat-egitea, bereiztea, eraldatzea, azkentzea eta likidatzea kasuetan dagozkion erabakiak hartzea.
- o) Patronatuko hautapenezko kideak izendatzea eta kide izateari uztea erabakitzea.
- p) Estatutuen 47. artikuluan aurreikusi dituzten fundazioaren sartzeko onartzea.
- q) Estatutuen 48. eta 49. artikuluan arautu dituzten lankidetzak kasuetan dagozkion erabakiak hartzea.

19. artikulua. Ahalmenak eskuordetzea eta ahalordeak ematea.

1. Patronatuak bere kideren baten edo batzuen esku utzi ahal izango ditu bere ahalmenak, artikuluko honen 2. zenbakian aurreikusi dituzten kasuetan izan ezik.

2. Ezin izango ditu inoren esku utzi ondorengo gai hauei buruzko erabakiak:

- a) Urteko kontuak onestea.
- b) Jarduera-plana onestea.
- c) Estatutuak aldatzea.
- d) Fundazioaren bat-egitea, bereiztea, eraldatzea, azkentzea eta likidatzea.
- e) Beste pertsona juridiko bat eratzea, eratze-egintza horiek ez badaude zuzenean lotuta helburuei.
- f) Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratzea edo saltzea, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa fundazioaren aktiboaren %20 baino gehiago bada.
- g) Fundazioaren aktiboaren %20 gainditzen duten ondasunak edo eskubideak xedatzeko edozein egintza onartzea.
- h) Zuzkidura handitzea edo txikitzea.
- i) Aktibo eta pasibo guztien edo haien parte baten bat-egitea, bereizketa edo lagapen orokorra onartzea.
- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk azkentzeko egintzak onartzea.
- k) Patronatuko kideen autokontratazioa onartzea, salbu eta jarduketak hori errepikatua bada eta Babesletzak aurretik baimendu badu kasu berdinetarako.
- l) Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.



3. Orobat, Patronatuak ahalorde orokorrak eta bereziak eman eta errebokatzeko aukera izango du.

4. Eskuordetzeak eta ahalorde orokorrak (auzietarakoak kenduta) emateak eta errebokatzeak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

20. Batzorde betearazleak edo eskuordetuak.

1. Patronatuak batera eta betirako eskuordetu ahalko ditu bere ahalmenak Patronatuko zenbait kideren alde; eta, horretarako, batzorde betearazle edo eskuordetu bat sortuko du.

2. Batzordea sortzeko erabakian zehaztuko ditu Patronatuak eskuordetzen dizkion ahalmenak eta batzordea osatuko duten kideak, gehienez ere, Patronatuko kide kopuruaren erdiak izango direnak.

3. Estatutu hauetan Patronatuaren funtzionamendua arautzen duten aurreikuspenak aplikatuko zaizkio, ahal den neurrian, batzordearen funtzionamenduari ere.

21. artikulua. Patronatuaren betebeharrak.

SUESKOLako Patronatuko kideek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Fundazioaren helburuak zorrotz betetzea eta betearaztea, legeak eta fundazioaren estatutuek diotenari jarraikiz.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea eta haien produktibitateari eustea, kudeatzailerik on baten ekonomia- eta finantza-irizpideei jarraikiz.
- c) Kargua ordezkari leial baten arduraz betetzea.

22. artikulua. Patronatuko kideen autokontratazioa.

1. Patronatuko kideek edo haien ordezkariak ezingo dute fundazioarekin kontraturik egin, ez beren izenean ez hirugarrenen izenean, salbu eta Babesletzak horretarako baimena ematen badu, erregelamendu bidez ezarritako prozeduraz.

2. Fundazioaren helburuak ahalik eta ondoen lortzeko egingo dira kontratu horiek, ez dute interesen arteko gatazkarik sortuko, eta merkatuko baldintzetan egingo dira, fundazioan kontratazioaren ardura duen pertsona edo organoak aurretik erabaki arrazoitua eman eta gero.

23. artikulua. Patronatuko kideen erantzukizuna.

1. Patronatuko kideek solidarioki erantzungo diete SUESKOLaren aurrean, legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz edo kargua eduki beharreko arduraz ez betetzeagatik eragiten dituzten kalte eta galerei.

2. Hauek guztiak erantzukizunetik aske geratuko dira: erabakiaren kontra bozkatu dutenak; erabakia hartzen eta betearazten parte hartu ez eta gainera frogatzen dutenak ez zutela erabakiaren berririk; baita ere, erabakiaren berri izan arren, frogatzen dutenak komeni zen guztia egin zutela kaltea ekiditeko edo, gutxienez, esanbidez aurka agertu zirela.




II. KAPITULUA. FUNTZIONAMENDU ARAUAK.

24. artikulua. Patronatuaren barneko funtzionamendua.

1. Patronatuak BI (2) bilera egingo ditu, gutxienez, urtean. Urteko lehenengo sei hilabeteen barruan ezinbestez elkartuko da urteko kontuak onartzeko; eta urteko azken hiru hilabeteen barruan, berriaz, hurrengo ekitaldiko jarduera-plana onartzeko.
2. Patronatuaren deialdiak idatziz egin beharko dira, nagusiki bitarteko elektronikoen bidez, bilera-eguna baino gutxienez HAMAR (10) egun natural lehenago; premiazko kasuetan izan ezik; horrelakoetan, epea HIRU (3) egun baliadunetara murriztu ahal izango baita.
3. Deialdiak presidenteak erabakitako gai-zerrenda jasoko du; betiere kontuan hartuko dituelarik Patronatuko gainerako kideen iradokizunak.

25. artikulua. Patronatua eratzea eta erabakiak hartzea.

1. Patronatua balio osoz eraturik egongo da lehenengo deialdian, gutxienez kideen erdiak gehi bat bertaratzin direnean, pertsonalki edo ordezkari bidez. Horietatik gutxienez BI (2) Gipuzkoako Foru Aldundiari dagozkionak izan behar dira –fundatzaile den aldetik–; eta, halakorik izanez gero, kideetako entitate bakoitzetik beste BANA (1) ere izan beharko da.
2. Aurreko zenbakian adierazi den quoruma biltzen ez bada, Patronatua ordubete geroago elkartuko da. Bigarren bilera horretarako, berdina izango da zenbat kide bertaratzin diren, betiere gutxienez HIRU (3) biltzen badira eta haien artean presidentea eta presidenteordea badira.
3. Aurreko zenbakietan adierazitakoa gorabehera, Patronatua deitu egin dela eta zilegi osatuta dagoela ulertuko da, kide guztiak bertan badaude, eta aho batez onartzen badute bilera egitea.
4. Erabakiak bertaraturik botoen gehiengo soilaz hartuko dira, ondorengo 5. eta 6. zenbakietan aurreikusitako kasuetan izan ezik.
5. Patronatuko kideen gehiengo soilaren aldeko botoa beharko da gutxienez; eta, betiere, 8.3 artikuluan aipatutako bertaraturik kide guztien aldeko botoa ondorengo erabaki hauek hartzeko:
 - a) Patronatuko kideak izendatzeko eta horien kargu-uztea erabakitzeko.
 - b) 47. artikuluan aurreikusten diren entitateak SUESKOLAn sartzea onartzeko eta sartze horren baldintzak ezartzeko.
6. Patronatuko kideen bi herenek aldeko botoa ematea beharrezkoa izango da ondorengo erabaki hauek hartzeko:
 - a) Estatutuak aldatzeko.
 - b) Bat-egite, bereizte, eraldatze eta azkentzeari buruzko erabakiak hartzeko.
 - c) Jarduera-plana eta urteko kontuak onartzeko.
 - d) Fundazioko langileen plantilla eta organigrama onartzeko; eta lanpostu bakoitzari dagokion ordainsaria finkatzeko.
7. Presidente diharduenaren botoak sor litezkeen berdinketak hautsiko ditu.



8. Idazkariak Patronatuaren bilera bakoitzaren akta egingo du; eta bertan jasoko ditu hartutako erabakien baliotasuna eta arauzkotasuna kalifikatzeko beharrezkoak diren gorabehera guztiak. Bereziki, honako hauek:

- a) Bilera eguna eta tokia.
- b) Deialdia egin zen eguna eta modua.
- c) Gai-zerrenda.
- d) Bertaratutako Patronatuko kideen izenak: pertsonalki etorri diren edo ordezkaritza bidez dauden adieraziz; baita bilera lehenengo deialdian ala bigarren deialdian egin den ere.
- e) Hartutako erabakien testu osoa; erabaki bakoitza hartzeko gehiengoak nolakoa izan den ere adieraziz.
- f) Aktaren onarpena, baldin eta bileraren bukaera onartu bada.

9. Patronatua bideokonferentziaren edo komunikaziorako beste baliabide batzuen bidez bildu ahal da, betiere hau guztia bermatzen bada: bileran parte hartzen dutenak identifikatzea, komunikazioa jarraitua izatea, eztabaidetan parte hartu ahal izatea eta botoa eman ahal izatea. Horrela eginez gero, bilera presidentea dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

10. Salbuespen gisa, bilerarik egin gabe ere hartu ahal izango ditu erabakiak Patronatuak, betiere informazio- eta boto-eskubideak bermatuta badaude, botoa jaso dela nonbait agerrarazten bada eta haren autentikotasuna bermatzen bada. Erabakia fundazioaren helbidean hartu dela ulertuko da, eta emandako baliozko botoetatik azkena jasotako datan.

III. TITULUA. SUESKOLAREN ZERBITZUKO LANGILEAK

26. artikulua. SUESKOLAREN zerbitzuko langileak.

1. Fundazioaren ohiko kudeaketa zuzendari baten esku utzi ahal izango du Patronatuak; eta haren izendapena eta kargu-uztea Babesletzari jakinarazi beharko dizkio. Horretarako zuzendariari emandako ahalorde orokorrak, ematen bazaizkio, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.

Patronatuak emandako ildoei jarraikiz eramango du fundazioaren ohiko kudeaketa zuzendariak; eta Patronatuari emango dio egindakoaren berri, gobernu-organoak berak ezarritako aldizkakotasunarekin.

2. Fundazioaren jarduerak efizientziaz gauzatzeko behar beste langileen plantilla izango du SUESKOLAK, Patronatuaren zuzendaritza eta gainbegiradapean.

3. Sektore publikoko fundazioa denez, langileak hautatzerakoan berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta deialdiaren publikotasun-printzipioei jarraikiz jardun beharko du SUESKOLAK.

4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko fundazioa den aldetik, berriz, lurraldearen urteroko Aurrekontu Orokorrak onartzeko Foru Arauak hala xedatzen duenean eta xedatutako baldintzetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena eskuratu beharko du SUESKOLAK langile berriak kontratatu baino lehen.



IV. TITULUA. ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

I. KAPITULUA. ONDAREAREN OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINZTA.

27. artikulua. SUESKOLAREN ondarea.

1. SUESKOLAREN ondarea honako hauek osatuko dute: batetik, zuzkidura osatzen duten eta ekonomikoki balioets daitezkeen ondasunek, eskubideek eta obligazioek; eta, bestetik, eratu ondotik fundazioak eskuratutakoak –zuzkidurari lotu ala ez–.

2. Zehazki, fundazioaren ondarea osatuko dute ondorengo hauek:

- a) Ondarezko zuzkidurak.
- b) Gipuzkoako Foru Aldundiak, fundatzaile den aldetik, egiten dituen ohiko eta aparteko ekarpenek; eta estatutu hauen 47. artikuluan aipatu kideetako entitateek egiten dituztenek.
- c) Zuzenbidean onartu bideetatik eskuratutako beste edozein ondasun edo eskubidek, hala nola, beste pertsona batzuek, entitateek edo erakundeek emandako herentzien, legatuen, dohaintzen, ekarpenen edo diru laguntzen bidez.
- d) Patronatuak urtero onartu prezioen tarifari jarraikiz, bere jardueraren garapenean ematen dituen prestakuntza ikastaroengatik jasotako zenbatekoek.
- e) Aplikatu beharreko legearen barruan eskuratutako beste edozein baliabidek.

28. artikulua. Ondarezko zuzkidura.

1. SUESKOLAREN hasierako ondarezko zuzkidura 2009ko uztailaren 13ko eratze eskritura publikoan izaera horrekin jasota agertzen dena da: HOGEITA HAMAR MILA ETA BAT EURO (30.001€), fundatzaileak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, jarritako kapitala bere osotasunean.

2. Ondorengo ondarezko zuzkidurak Patronatuak onartu beharko ditu, eta urteko kontuetan jaso beharko dira.


3. SUESKOLAK bere zuzkidura handitzera zuzendu ahal izango ditu diru-sarreraren soberakinak.

29. artikulua. Fundazioaren ondarearen zaintza.

1. Fundazioaren ondarea zaindu eta babesteko, arau hauek bete beharko dira:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak SUESKOLAREN izenean egon behar dira; inbentarioan jaso beharko dira; eta, kasuan kasu, dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.
- b) Ondasun higiezinak eta eskubide errealak Jabetza Erregistroan inskribatu behar dira SUESKOLAREN izenean. Inskribatu daitezkeen gainerako ondasunak dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.
- c) Balore-tituluak eta esku-dirua, jabetza-tituluak, gordailu-ordeztagiriak eta jabaria, edukitza, erabilera, gozamina edo SUESKOLAREN titulartasunean dagoen beste edozein eskubide egiaztatzen duten beste edozein dokumentu fundazioaren izenean gordeko dira, Patronatuak ezarritako erakundearen.
- d) Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak zehazten duen eran gorde eta zainduko dira.

2. Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentario-Liburuan zehaztuko dira. Liburu hori Patronatuko idazkariaren ardurapean egongo da; eta bertan, haren ikuskaritzapean, haiek identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak agertuko dira.



II. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA.

30. artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta ekitaldi ekonomikoa.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko fundazioa den aldetik, SUESKOLARI aplikatuko zaion aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidea izango da lurralde historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak merkataritzako foru sozietateentzat ezarritako bera.

2. Ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa izango da, eta urte naturala hartuko du.

31. artikulua. Jarduera-plana.

1. SUESKOLAK jarduera-plan bat egingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzeko, non diru-sarrerak eta gastuak adieraziko baititu orekaz. Bertan jasoko dira, halaber, helburuak eta egitea aurreikusten diren jarduerak. Planari azalpen-memoria bat gehituko zaio.

2. Patronatuak jarduera-plana eta berekin doan azalpen-memoria onartu eta Babesletzari aurkeztu behar dizkio ekitaldi bakoitzeko azken hiru hilabeteetan.

32. artikulua. Urteko kontuak.

1. Onetsi eta hurrengo HOGEITA HAMAR (30) egun naturaleko epearen barruan, Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidali beharko ditu urteko kontuak, behar bezala sinatuta, gordailu ditzaten. Kontuak irabazi asmorik gabeko erakundeei aplikatu behar zaion kontabilitate-araudia bete beharko dituzte.

2. Fundazioaren urteko kontuek elementu hauek jasoko dituzte gutxienez: balantzea, emaitzen kontua, memoria eta aurreko jarduera-planaren likidazioa. Orobat, Patronatuak auditoretza-txostena aurkeztuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean edo aplikatu beharreko beste lege batean aurreikusitako kasuetan.

3. Halaber, kontuotan alderdi hauek guztiak jaso beharko dira: fundazioaren ondare-, ekonomia- eta finantza-egoera, urtean zehar egindako jarduerak eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa, fundazioaren helburuak eta lege arauak bete direla jakinarazi eta egiaztatzeko adina betiere.

4. Ekitaldia itxi eta hurrengo SEI (6) hilabeteko gehieneko epean onartu behar ditu Patronatuak urteko kontuak.

33. artikulua. Fundazioaren baliabideen erabilera.

